



2009KO MARTXOAREN 12KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko martxoaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Ángel Hernández Marzal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN ERAIKUNTZAREN BURUTZE PROIEKTUA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako "estali gabeko igerilekuen eraikuntza"rako burutze proiektua. Proiektu hau LKS Ingeneritza Kooperatiba Elkarteko Javier De La Fuente eta Eva Caceres arkitektoek idatzitakoa da.

Estali gabeko igerilekuen eraikuntza proiektu honen aurrekontua BEDERATZIEHUN ETA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (919.346,40 €)takoa da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, burutze proiektu hau onartzea erabakitzen du.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratu dira

II.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN ERAIKUNTZA PROIEKTUA BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKOZ ONARTU ETA PRESAZKO AITORPENA EGIN.-

Estali gabeko igerilekuen eraikuntza proiektua burutzeko Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9.2 Unitatean barneratzen diren lurren jabetza kentze espedienteak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egonda 15 eguneko epean eta ukitutako guztiei banan banako jakinarazpena egin zaie.

Horretarako irekitako epean hiru alegazio jaso dira eta alegazio hauen aurrean egindako txosten teknikoak ondorengo dio:

...///...

1.- Jose Angel Olano Gaztañaga J.k aurkeztutakoa.- 2009ko urtarrilaren 26an, sarrera erregistro zenbakia 148. Era oso laburtuan jabetza kentzearekin ez datorrela bat esaten du beste inolako zehaztapenik eman gabe. Alegazioa gaitzestea proposatzen da.

2.- Jon Goñi Vitoria J.k eta Maria Jesus Vitoria Iturrioz A.k aurkeztutakoa.- 2009ko urtarrilaren 28an, sarrera erregistro zenbakia 169. 2 zbk.dun lursailari dagokio eta bi aukera planteatzen ditu:

a) 2 zbk.dun lursailaren lur-trukaketa bere Ipar-ekialdean dagoen 3 zbk.dun lursailaren zati batekin hain zuzen ere eta lur-trukaketa hau nola egingo litzatekeen proposamenarekin. Txosten teknikoan esaten da lur-trukaketa hau ez dela posible, ondasun baten jabetza kentzea planteatzen den unetik, hau, garatu nahi den proiektua aurrera eramateko beharrezkoa delako dela.

b) "Udalak etxe honi dagokion lurra ikutu gabe utz dezala" eta honi erantsen zaio lehen aipatutako Ipar-ekialdean dagoen 3 zbk.dun lursailaren zatia eskuratzeko interesa. Txosten teknikoan esaten da ez dela ondo ulertzen zer esan nahi den, baina edozein modutara ere lur hori zerrendan sartuta baldin badago beharrezkoa delako dela.

Azkenik alegatzaileek jabetza kentze prozedurari honi ez dagokion eskakizuna egi-ten dute, hain zuzen ere, igerilekuen lanen buruketa baliatuz beraien etxebizitzetara gas naturala iritsaraztea. Txosten teknikoan adierazten da eskakizun hau ez dela jabetza kentzearen ari gareneko uneari dagokion zehaztapena.

Ondorioz txosten teknikoak alegazio hau gaitzestea proposatzen du.

3.- Maria Jesus Vitoria Iturrioz A.k aurkeztutakoa.- 2009ko urtarrilaren 28an, sarrera erregistro zenbakia 170. Alegazioa ez dagokio gauden uneko jabetza kentze espedientearen alderdi zehatzei, hau da, beharrezko diren ondasun eta eskubideen zehaztapenari, baizik eta aurreragoko une batean etorriko den balio juistuari, eta kalteordaina diru bidez gauzatu ez dadin baizik eta aprobetxamendu aitorten bidezko akordioa lortzearen beraien interesa agertzen da. Honen inguruan, esan behar da, horretan ari dela, honen zehaztapena geroago etorriko den balio juistuaren zehaztapen fasean egingo delarik.

Ondorioz alegazio honen aurrean, eskakizunak kontutan hartzen direla eta gero etorriko den balio juistuaren fasean zehaztuko direla erantzutea proposatzen da.

Guzti honen aurrean, eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Jose Angel Olano Gaztañaga J.k, Jon Goñi Vitoria J.k eta Maria Jesus Vitoria Iturrioz A.k, eta Maria Jesus Vitoria Iturrioz A.k aurkeztu dituzten alegazioak gaitzestea, txosten teknikoan adierazitako zioengatik.

2.- Estali gabeko igerilekuen eraikuntza proiektua burutzeko okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzea. Zerrenda hau ondorengo da:

...///...



...///...

Partzela	Katastroko Erref.	Jabea	Azalera m ²	Helbidea
1	2109097	Irene, M ^a Jesus y Javier Vitoria Iturrioz y Jon Muruamendiaraz Vitoria	158,00	Irene: Mikelar, 14. Lazkao M ^a Jesús: Barreiatua, 3 – 02 Bitoria Etxea. Lazkao Javier: Getaria, 14 – 02 Esk. Donostia Jon: Elozegi, 24 - 01 A. Lazkao
2	2109097	M ^a Jesús Vitoria Iturrioz y Jon Goñi Vitoria (*)	8,00	M ^a Jesus: Barreiatua, 3 – 02 Bitoria Etxea. Lazkao Jon: Barreiatua, 3 – 01 Bitoria Etxea. Lazkao
3	2409098	Jose Angel Olano Gaztañaga	1.689,00	Barreiatua, 4 – Komendradi Baserria. Lazkao
4.1	2409099	Joaquín M ^a y M ^a Dolores Aguirre Garín	2.556,00	Joaquín: Oriamendi, 43 – 04 C. Beasain M ^a Dolores: Larrasolo, 15 – 06 B. Barakaldo
4.2	R-02-100	Joaquín M ^a y M ^a Dolores Aguirre Garín	305,00	Joaquín: Oriamendi, 43 – 04 c. Beasain
5	2424006 2409098	Lazkaoko Udala	1.440,00	Euskadi Enparantza, 1. Lazkao

(*) Jon Goñi Vitoria Jn.ren partaidetzak Kutxaren hipoteka du beregain

3.- Zerrendatutako ondasun eta eskubideen presazko okupazioaren beharra aitortzea eta dagokion jabetza kentze espedientearen hasiera egina dagoela jotzea.

Une honetan Fco. Javier Moreno Gonzalez de Lara zinegotzia bertaratu da.

III.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN ERAIKUNTZA LANEN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA.-

"Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" obraren lanak burutzea prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

Horretarako irekitako baliozko epearen barruan honako proposamenak aurkeztu dira kontutan izanda:

- Miguel Imaz, S.A.
- Altuna y Uria, S.A.
- Eguzki eraikuntzak, S.L:

Proposatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, proposatzaile guztiak onartuak izan dira.

...///...

...///...

Udalarentzat abantailatsuena izateagatik, Kontratazio Mahaiak kontratuaren behin-behineko esleipena 2 zbk.dun proposamenaren egilea den Altuna y Uria, S.A.ren alde egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bozketan jartzen du eta bertartatutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Lizitazio egintza baliozkoa aitortzea.

Bigarrena.- Lazkaon "estali gabeko igerilekuen eraikuntza" obraren lanak burutzeko lehia-keta, Udalarentzat proposamenik abantailatsuena izateagatik, behin-behineko Altuna y Uria, S.A.-ri esleitzea, ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA HIRUEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (859.343.75 €)-tan, B.E.Z. barne.

Hirugarrena.- Behin-behineko esleipena esleituak izan ez diren proposatzaile guztiei jakinaraztea.

Laugarrena.- Behin-behineko esleitzailari, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen duenetik 15 lanegunetako epean, behin-betiko bermea jar dezan, hala nola, Baldintza Administrazioen Pleguko hamabosgarren klausulan adierazten den dokumentazioa, aipaturiko dokumentazioaren ekarpena egin ez bada, ekar dezan eskatzea.

Bosgarrena.- Kontratuaren behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

